

# zumaia

7. zenbakia • 2010eko Otsaila

**ZU**  
udalaldizkaria



Zumaiako Udala



## Hiritartze egitasmo berria Zumaian

*Txomin Agirre eta Mendaro Marinela kaleak hiritartzea eta bien lotunea den zubia irisgarritasun irizpideetara egokitzea izango dira proiektuaren helburuak*

# aurkibidea

2 Merkatarien katalogoa

3 Inkesta

4 Fototeka

5 Denon herri kontuak

6 Motxian

8 Herriko bideak josten

12 LTDa Zumaian

13 Geoparkea / Zumaia Lantzen

14 Gazteria Diagnosia

16 Artadin askaldegia

17 Alderdien iritzia

20 Agenda

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaia Udal

Egilea: Prentsa bulegoa

Argazkiak: Zumaia Udal eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 4.500 ale

L.G.: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

## udal zerbitzua; merkatarien katalogoa



Sektorean euskarak duen presentzia areagotzeko helburuarekin kaleratu du Udaleko Euskara Zerbitzuak merkatariarentzako euskarazko katalogo berritua. Katalogoak eskaintzen dituen produktuak guztiz doakoak dira eta urte osoan erabili ahal izango dituzte merkatariak. Eskerak telefonoz (943 865025) edo Euskara Zerbitzura joanda egin daitezke eta interesatuak hurrengo egunerako izango dute eskatutakoa, bere establezimenduan bertan. Gainera, nahi beste aldiz erabili ahal izango dute zerbitzu hau.

Zumaia Udalak, bezeroei eskainitako zerbitzua hobetzen lagundu nahi die merkatariari. Izan ere, bezeroari zerbitzua bere hizkuntzan eskaintzeak, zerbitzuaren kalitatea hobetzen du eta zuzenean eragiten du bezeroaren asebetetzean.

### Ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu katalogoak:

Merkealdiko kartelak, deskontuen kartelak, atean jartzeko 'zabalik/itxita' plaka, euskaraz lan egiteko faktura keta bestelako inprimakiak, euskara ikasteko materiala ostalariarentzat, itzulpenak eta zalantzak argitzeko laguntza, errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntza eta hainbat hiztegi espezifiko.

Okerrik ezean, otsailean aurkeztuko du Udalak Zumaiaiko emakume eta gizonen arteko I. Berdintasun Plana. Inkesta honetan, herritarrek emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan duten iritzia jaso dugu.

El Ayuntamiento de Zumaia, con la colaboración de Emakunde, está elaborando el I Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de Zumaia. Aquí hemos recogido la opinión que los zumaiarras tienen sobre la igualdad en este ámbito.

## Nahikoa urrats egiten al da berdintasunaren alde?



Patricia Camacho

Arlo guztietan ikusten dira desberdintasunak: eskolan, lanean, kalean... Eta horiek gainditzeko neurriak hartzean oso garrantzitsua da. Hala ere, txikitatik hasi beharko lirateke balore horiek lantzen; behin adin batetik aurrera zaila baita ohiturak aldatzea. Zumaiaiko emakume eta gizonen Berdintasun Planean ez dut parte hartu, lanean nengoelako, baina positibotzat ikusten dut ekimena.

*Es importante enseñar los valores sobre la igualdad de derechos desde la infancia.*



Mari Karmen Udabe

Desberdintasunak badaude oraindik ere. Lanean, adibidez, nik neuk antzematen ditut ezberdintasun egoerak. Zorionez, egoera aldatzen ari da pixkanaka. Herriko elkarteetan ere gero eta emakume gehiago sartzen ari da. Ni neu ere elkarre bateko bazkidea naiz, eta hori garai batean ezinezkoa zen. Lehendik asko aldatu da egoera, baina oraindik badago zer eginga berdintasunaren bidean.

*La realidad está cambiando pero todavía tenemos mucho que trabajar.*



Ines Uranga

Askotan emakumea bera da bere burua gutxiesten duena. Horri buelta emateko eta emakume eta gizonen arteko berdintasun egoera baten bila joateko lan asko daukagu oraindik egiteko; arlo guztietan gainera: udaletxean, eskolan, kalena, familian... Baita geure burutik hasita ere. Emakumeok kontzientzia hartu beharra daukagu eta gizonei hori erakutsi. Hortik abiatu beharko genuke.

*Muchas veces, somos nosotras mismas las que nos menospreciamos.*



Leopoldo Maia

Gauzak ari dira aldatzen baina oraindik ezberdintasunak badaude gizonen eta emakumeen eskubideen artean. Etxekoan zaintza, adibidez, emakumeengan erortzen da osorik. Era berean, lan berdina egin eta soldata baxuagoa jasotzen dute zenbait tokitan emakumeek oraindik, eta hori aldatu beharra dago. Egoera asko normaltasunez hartzen ditugu eta oraindik badago lana egiteko.

*Por el mismo trabajo, aplicar un salario menor, es una realidad que hay que cambiar.*

## udala zuzenean



**u**rte osoa daukagu aurretik eta hamaika erronka zumaierren alde lan egiten jarraitzeko. Aurtengo erronketako bat Zumaia mugikortasunean aurrerapauso nabarmenak egitea izango da. Mugi zerbitzuak sei hilabete bete ditu dagoeneko, eta ordutik hona ia 7.000 mailegu eskaini ditu. Abiatzearen proiektu berrien baitan, lehendik zeuden bidegorriak egokitu eta sarea bere osotasunean hobetzea izango dugu asmoa. Orain, herritarrak izango gara MUGItzen hasi behar dugunak, guztion artean sortutako aukerak baliatuz.

**t**enemos un año por delante y numerosas iniciativas para seguir trabajando a favor de nuestro pueblo. Entre las propuestas para este año caben destacar los proyectos para mejorar la movilidad de la localidad, y pretendemos dar pasos significativos en ese aspecto. El servicio Mugi ya cumple 6 meses desde su puesta en marcha y hasta la fecha ha ofrecido cerca de 7.000 servicios. Con los nuevos proyectos que están en camino, adecuaremos las antiguas vías ciclistas y formalizaremos una red amplia de bidegorris. Ahora, será labor de todos y todas ponernos en MUGImiento.

## Fototeka



**n**olakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzen Zumaia argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaierrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) helbidean dago ikusgai.



Argazkian Kandelari egunez, haurrak kandlekin. Elizara eramaten zituzten, han bedeinatzeko.

*Niños con velas en la mano, camino a la coronación de la Virgen de Arrikokieta.*



Jose Maria Zubia, 'Aita Mari'-ren omenezko eskultura Alondegi Zaharreko horman jartzen. Egun, eskultura gordeta dago udaletxean, Alondegiko eraberritze lanak direla-eta.

*Trabajos para poner la escultura conmemorativa a Jose María Zubia, 'Aita Mari' en la fachada de la antigua Alhóndiga.*

## Urte berria, zerga zaharrak

**Ez da igoerarik izango aurtengo zerga eta tasetan**



**Z**umaiako Udalak dagoeneko argitaratu ditu 2010erako udal ordenantza fiskalak. Azaroaren 10eko ezohiko udalbatzarrean hartutako erabakiari jarraiki, urte berrirako ordenantza fiskalak bere horretan mantenduko ditu Udalak. Joseba Azpiazu Ogasun zinegotziak azaldutakoaren arabera, “bizi dugun krisi ekonomiko honetan, ez dugu uste bidezkoa denik karga guztia herritarrengan uztea”. Beraz, aurtan ez da igoerarik izango Udaleko zerga eta tasetan.

Illo beretik, Udalak banatu du dagoeneko 2010erako egutegi fiskala ere. Urte hasieran bidali zitzaizkien herritarrei egutegiak etxeetara eta [zumaia.net](http://zumaia.net)-en ere urtarriletik kontsultatu daitezke.

Hala, martxoaren 1etik apirilaren 8ra bitartean kobratuko zaie herritarrei Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga. Landa eta Hiri Ondasun Higiezin gaineko zerga, berriz, maiatzaren 14tik uztailaren 2ra artean kobratuko da, eta Ekonomi Jardueren gainekoa urriaren 1etik azaroaren 10era. Azkenik, urte amaieran egingo da lbiien, toldoen, lur eta lurrazpiko okupazioaren, taxi baimenen eta hilerriko mantentze lanen kobrantza,

urriaren 1etik azaroaren 5era hain zuzen. Tasei dagokienez, ohi bezala, lau hiruhilekotan banatuta kobratuko dira uraren eta zaborraren tasak.

### Hobariak eta penalizazioa

Azpiazu Ogasun zinegotziak aipatu bezala, bere horretan mantenduko dira hobariak ere. Hala, %50eko hobaria izango dute Ondasun higiezin gaineko zergen, Bizigune programan apuntatu dauden herritarrek. Famili ugariak ere abantailak izango dituzte zerga horretan: hiru seme-alabako familiei %50ean murriztuko zaie ondasun higiezin gaineko zerga; lau seme-alabakoei %70ean; eta bost seme-alaba edo gehiagoko familiek %90eko hobaria izango dute. Horiez gain, Babes Ofizialeko Etxebizitzetan bizi direnek ere abantailak dituzte eta baita elbarrituek ere. Horrekin batera, uraren, zaborraren eta kiroldegiko tasetan hobariak aplikatuko zaizkie familiako kide eta diru-sarreraren arabera zehaztutako zenbait ezaugarri betetzen dituztenei.

Hobariekin batera, aurtan penalizazio bat gehitu zaie ordenantza fiskalei. Hala, etxebizitza hutsen jabeek ondasun higiezin gaineko zergaren %50a ordaindu beharko dute.

Etxebizitza hutsa definitzeko lau puntu hartu ditu kontuan udal gobernauak, ezaugarri horiek betetzen ez dituen izango da etxebizitza hutsa:

- Etxebizitza ohikoa izatea.
- Alokairuan dagoen etxebizitza izatea.
- Etxebideren Bizigune programan erregistratutako etxebizitza izatea.
- Familia edo inguruko kideren baten erabilera lagapena dagoenean.

Informazio gehiago edota hobarien eskariak egiteko Zumaiako Udaleko Kontu-hartzaitzako bulegoetara jo beharko da. Familiako kide eta diru-sarreraren arabera hobaria, berriz, Branka Gizarte Zerbitzuen egoitzan eskatu behar da.

**e**l Ayuntamiento ha hecho pública la ordenanza fiscal reguladora de diversos tributos para el 2010. El pleno municipal del pasado mes de noviembre aprobó congelar los impuestos tributarios de cara al nuevo año. Según ha señalado el concejal de hacienda Joseba Azpiazu, “en esta época de crisis económica en la que nos encontramos, creemos que no sería justo dejar toda la carga en manos de los ciudadanos”. De acuerdo al reglamento, obtendrán bonificaciones en ciertas tasas e impuestos, las familias numerosas, los vecinos y vecinas de las casas de protección oficial, o los discapacitados. También habrá bonificaciones en la tasa del agua, la basura y el polideportivo, dependiendo del salario interprofesional, comparando con el sueldo mensual.

## ‘Mugi’ zerbitzua hobetzeko neurriak



Mugi zerbitzuaren inguruan izandako zenbait arazo direla-eta, Udalak barkamena luzatu nahi die erabiltzaileei. Izan ere, zerbitzuaren estaldurak huts egin du zenbait egunetan, batez ere Amaiako plazan eta abenduan zehar.

Udalak joan den urteko ekainean zerbitzua martxan jarri zuenetik gaur egunera, 7.000 mailegu eskaini ditu. Erabiltzaileak, berriz, 437 dira gaur egun. Urria izan da mailegu gehien egin diren hilabetea, 1.665 egin dira. Iraila izan da bigarrena, 1.411 mailegurekin, eta azaroak ere mailegu kopuru zabala eskaini du, 1.034 guztira. Abenduan maileguez behera egin dute, eguraldi txarrak eta zerbitzuaren arazo teknikoek eraginda. Orain, zerbitzua hobetzea da Udalaren nahia eta horretara bidean, kalitate hobegoko bizikletak izango ditu otsail hasieran Mugi zerbitzuak. Horrekin batera, dagoeneko konpondu dira Amaiako plazako mailegu guneko arazoak.

*El Ayuntamiento anuncia mejoras en el servicio de alquiler de bicicletas Mugi de cara al nuevo año. En febrero se procederá a la instalación de nuevas bicicletas, y del mismo modo, se solventarán los problemas ocasionados principalmente en la terminal de la plaza Amaia. Desde la puesta en marcha del servicio en junio del año pasado, Mugi ha ofrecido cerca de 7.000 servicios y cuenta con 437 usuarios, de los cuales 28 son menores de edad y 48 jubilados o pensionistas.*

## Zumaiak ere izan du lekua Fiturren



Urtarrilaren 20tik 24ra bitartean ospatu zen Madrilén Fitur, turismoaren nazioarteko azoka eta Zumaiak ere izan du ordezkartza eskaintza turistikoaren nazioarteko erakusleho honetan. Iñaki Agirrezabalaga Zumaiako alkatea eta Leire Azurza turismo teknikaria bertan izan dira herriaren ordezkari gisa.

Euskal Kostaldeari buruzko standean aurkeztu zuten Zumaiako eskaintza, eta besteak beste, Algorri Interpretazio Zentroa, Zumaiako flysch-a eta Deba eta Zumaia arteko bisita gidatuak ezagutarazi zituzten. Agirrezabalagaren esanetan, “azoka nazioarteari begirako erakusleho aparta izateaz batera, hartu-emanetarako gunea ere bada”. Ildo horretatik, Fiturreko zuzendari Ana Larrañagarekin hitz egiteko aukera izan zuten. Zumaia ederki ezagutzen du Larrañagak, oikiarra baita bera.

*Zumaia también estuvo presente en la Feria Internacional de Turismo Fitur que se celebró el pasado mes de enero. Tanto el alcalde de Zumaia Iñaki Agirrezabalaga como la técnica de turismo Leire Azurza acudieron a la muestra en representación de nuestra localidad.*

## ‘Flysch, Haitzen Hitza’-ri harrera beroa



Zumaiako itsaslabarrari buruzko ikus-entzunekoa abenduaren 30ean aurkeztuko zuten Zumaian. Bi saio eskaini zituzten egun berean, eta bietan, Aita Mari zinema ondo beteta izan zen. Asier Hilario geologoak eta Alberto Gorritiberea zinegileak zuzendu dute dokumentala eta Zumaiako Udalak finantziazioan lagundu du.

Egileek, lurraren historiaren bilakaera aztertu dute eta gizakiak aurrean dituen erroinei buruzko hausnarketa egin nahi izan dute lan honetan. Hausnarketa, baina, Zumaiako itsaslabarretan jasota dagoen informaziotik abiatuta egin da. Dokumentalaren zuzendariak honela deskribatu dute dokumentalaren mamia: “Geologiak bizitza ezegonkorra izan dela erakusten digu, eta gaur arte ikusitako hainbat gertaera, ziurtasun osoz, beste noizbait ere errepikatuko direla. Zumaiako labarretan aztergai dauden gertaerei biziraungo ote lieke gure espezieak?”.

*El documental sobre el Flysch de Zumaia se estrenó el pasado 30 de diciembre en Zumaia. Se ofrecieron dos sesiones, y la sala Aita Mari se llenó en ambas funciones. Dirigido por el geólogo Asier Hilario y el cineasta Alberto Gorritiberea, la narrativa del audiovisual explica cómo en las capas de sedimento del Flysch de Zumaia, se puede leer la historia de millones de años de nuestro planeta. El Ayuntamiento de Zumaia ha colaborado en la financiación de la película que ha obtenido una buena aceptación entre los/as zumaiarros.*

## Festarik festa San Juan egoitzan



San Juan Egoitzak eskerrak eman nahi dizkie iragan diren gabon egunen egoitzara hurbildu ziren guztiei. Eskainitako alaitasun eta goxotasunarengatik eskerrak eman nahi dizkiete familia eta langileei, boluntario guztiei, Nagusilan elkarteari, jaiotza ipintzen dutenei, San Pedro Txiki abesbatzari, Gabon Koruari eta Parrokiako taldeari.

Otsailaren 16an egingo duten inauteri festara gonbidatu dituzte guztiak. Egoitzan bertan ospatuko dituzte karnabalak eta aurten, futbolistaz mozorrotuko dira.

*Los responsables de la residencia San Juan quieren agradecer la colaboración de toda la gente que les ha ayudado durante las fiestas de navidad. Por la alegría y dulzura que han mostrado, quieren dar las gracias a todas las familias y trabajadores/as, a todos los voluntarios, a la asociación Nagusilan, a los encargados del belén, al Coro San Pedro Txiki, al Coro Gabon y al grupo de la Parroquia.*

*Quieren invitar a todos a participar en la fiesta de carnaval que celebrarán el próximo día 16 de febrero en la residencia. Y todos se vestirán de futbolistas.*

## Herriko bideak josten

Txomin Agirre eta Mendaro Marinela kaleak hiritartu egingo dira eta bien lotunea den zubia irisgarritasun irizpideetara egokituko da.

*Se urbanizarán las calles Txomin Agirre y Mendaro Marinela y el puente se adecuará a los criterios de accesibilidad.*

**Z**umaiako Udalak hiritartze proiektu berri bat du esku-artean. Txomin Agirre eta Mendaro Marinela kaleak hiritartzea izango du egitasmoak helburu eta ildo beretik, bien lotunea den moilaberriko zubia irisgarritasun irizpideetara egokitzea. Andoni Etxaniz Hirigintza eta Ingurumen zinegotziaren arabera, “proiektu berri honen baitan, udal gobernuaren helburuak eta herritarren parte-hartze bideetatik eratorritako proposamenak uztartu ahal izan ditugu”.

**“Udal gobernuaren helburuak eta herritarren parte-hartze bideetatik eratorritako proposamenak uztartu ahal izan ditugu”.**

Daniel Carballo arkitekto zumaiarrak diseinatu du proiektua eta Txomin Agirre eta Mendaro Marinela kaleen arteko hiritartzeak, bidegorri berri baten egikaritzeak eta moilaberriko zubiaren eraberritzeak ezaugarritzen dute egitasmoa nagusiki. Espainiako Gobernuak eskainiko dituen diru-laguntzen bidez finantzatuko da eta datozen hilabeteetan jarriko dira abian lanak.

Garraibide jasangarria eta herrian batetik bestera joateko oinezkoen mugikortasuna. Bi ezaugarri horiek ditu funtsean proiektu honek eta horretarako hainbat egokitzapen egingo dira. Horien artean, moilaberriko zubiaren irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzea gauzatuko da. 1987an eraiki zuten Txomin Agirre eta Mendaro Marinela kaleak lotzen dituen zubi txikia. “Zubi honek ez ditu irisgarritasun irizpideak betetzen eta herriko pasabide garrantzitsu bat dela kontutan hartuta, beharrezkoa zuen berehalako egokitzapena”, azaldu du Hirigintza zinegotziak.

Horretarako, zubiaren malda txikitu, eta albo banatara ranpa zabalak egokituko zaizkio. Gernika parkeranzko maldak jarraipena emango dio tren geltoki zaharraren aurreko enparantzari. Izan ere, plaza horren egokitzapena ere aurreikusten du proiektuak: “geltoki zaharraren eraikinerako eskailerak ezkutatu egingo dira eraikinerako irisgarritasuna errazteko; horrela, enparantza maldan eraikiko da, zubi txikiaren malda berriarekin elkartzuz. Kantauri plazarekin komunikabidea erraztuko du horrek eta batik bat, leku interesgarri hau erosoagoa bihurtuko du”, azaldu du Daniel Carballo



Tren geltoki zaharraren aurreko plaza hiritartu egingo da.

arkitektoak. Horrekin batera, eserlekuak jarriko dira eta orain Gernika parkearen erdian dagoen komun publikoa ere bertan egokituko da.

**“Geltoki zaharraren eraikinerako eskailerak ezkutatu egingo dira eraikinerako irisgarritasuna errazteko”.**

### **Bidegorri berria Mendaro Marinelan**

Illo beretik, bidegorri berria egingo da Mendaro Marinela kalean eta horretarako berrantolatu egingo da kalearen ordenazioa. Iltan aparkatu beharrean, baterian antolatuko dira aparkalekuak. Horrek, bidegorriaren egikaritzeaz gain, kale horretako espaloiak zabaltzea ahalbidetuko du.

Bidegorri berri honek, Basadi kaletik datorren bidegorria Gernikako parkekoarekin lotuko du. Eta zubi txikiaren egokitze lanek, berriz, Gernikako parkea Paolbidera doan bidegorriarekin batzea ahalbidetuko dute. Horrela, Basadi kaletik Paoleraingo edota Santiagoko hondartzaraino,



oinezko edo bizikletentzako pasealeku atsegina eta irisgarria eskainiko zaie herritarrei.

Txomin Agirre kaiko ordenazioan ere egokitzapenak ekarriko ditu proiektuak. Izan ere, bidegorriaren, aparkalekuen eta oinezkoen pasealekuaren ordenazioa moldatu egingo da. Kai aldean antolatuko dira bai bidegorria eta baita oinezkoen pasealekua ere, eta errepide alboan ezarriko dira aparkalekuak. Etxaniz Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, “kaiaren ordenazioa desegokia

iruditzen zitzaigun hasiera-hasieratik. Oinezkoak, autoak eta bizikletak leku gehiegitan gurutzatzen dira gaur egun, eta arrisku egoerak sortzen ditu horrek.

**“Ibilgailuentzako, oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak ezberdinduta geratuko dira, arrisku egoerak ekidindo ditugu horrekin”.**

Gainera, espazioaren erabilera ez zaigu egokia iruditzen. Ordenazio berriarekin,

ibilgailuentzako, oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak ezberdinduta geratuko dira eta neurri handi batean, arrisku egoerak ekidindo ditugu horrekin”.

Ildo beretik, Mendaro Marinela eta Txomin Agirre kaleetako argiteria berritu egingo da. Kendu egingo dira gaur egun dauden farolak eta kontsumo baxuko argiteriarekin ordezkatuko dira. Joan den urteko martxoan egin zuen Udalak Zumaiako argiteria publikoaren inguruko ikerketa eta eraginkortasun

**e**l Ayuntamiento de Zumaia promoverá un nuevo proyecto de urbanización para las calles Mendaro Marinela y Txomin Agirre. El objetivo será urbanizar las dos calles y adecuar a los criterios de accesibilidad el puente que las une. Fundamentalmente, la esencia del proyecto se basa en facilitar el transporte sostenible y comunicación peatonal por el municipio, dando continuidad a la red municipal de bidegorris.

Para ello, se procederá a la reordenación de la calle Mendaro Marinela, eliminando los aparcamientos en línea y sustituyéndolos por aparcamiento en batería. Del mismo modo, el proyecto pretende comunicar el carril de bicicletas del paseo Julio Beobide con el bidegorri del parque Gernika y con el nuevo carril de bicicletas de Basadi, construyendo para ello un nuevo bidegorri en Mendaro Marinela. La nueva ordenación de la calle posibilitará, aparte de la

construcción de un bidegorri, la ampliación necesaria de las aceras.

Para mejorar la accesibilidad del puente peatonal, se propone intervenir construyendo varias rampas de madera a cada lado del río Narrondo y de esta forma, se disminuirá la pendiente que posee hoy día el puente. Hacia el paseo Gernika, las rampas se extenderán hacia el edificio de la antigua estación del ferrocarril de Urola, para crear una plazoleta como remate del paseo.



Moilaberriko zubiaren malda txikitu egingo da eta albo banatara ranpa zabalak egokituko zaizkio.

energetikoaren eta argi kutsadura aztertu ziren. Horren ondotik, zenbait neurri zuzentzaile hartu nahi ditu orain Udalak. Joan den hilean egokitu zen Vitoriano Arrate kaleko argiteria eta proiektu honen baitan, Mendaro Marinela eta Txomin Agirre kalekoetan egingo dira egokitzapenak. Neurri horiekin, hiru helburu edo jomuga nagusitara iritsi nahi du Udalak: batetik, argiaren kontsumoa gutxitzea; bestetik, argi kutsadura ahal den neurrian ekiditea; eta hirugarrenik, herritarrek argiteriaren erabilpenean kontzientzia hartzea.

### Mugi zerbitzua indartuz

Egokitzapen lan horiez gain, hornikuntzari lotutako zenbait inbertsio ere egingo ditu Udalak. Arkitekto

teknikoaren arabera, “Espainiako Gobernuak aurten bideratuko dituen diru-laguntzek hornikuntzarako zenbait gastu ere aurreikusten dituzte. Beti ere eraikuntza proiektua material horniketa horrekin lotuta badago”. Hortik abiatuta, Mugi zerbitzua indartzeko inbertsioak egingo ditu Udalak aurten. Orain artean, mailegu zerbitzuko bizikletak alokairuan zituen Udalak eta laguntza hauen bidez, bizikletak erosi egingo ditu Udalak, alokairuaren gastuak ekidinez.

“Espainiako Gobernuak aurten bideratuko dituen diru-laguntzek hornikuntzarako zenbait gastu ere aurreikusten dituzte”.

Etzaniz Hirigintza zinegotziaren esanetan, “hasiera polita izan du zerbitzuak eta herritarrek erantzun ona eman dute”. Aurrera begira, berriz, honako gaineratu du: “herrian egiten ari garen inbertsioekin, bizikletak erabiltzeko zailtasunak zeuden guneak, bizikletarentzat eta oinezkoentzat eremu seguru eta atseginak izatea lortzen ari gara. Badakigu ibilgailuari pixkanaka lekua kentzea, bizikletei eta oinezkoek lekua emateko ez dela beti ondo ulertzen, baina aldaketak denbora behar dute bere osotasunean baloratuak izateko. Gure ustez, bide berri horietatik, epe ertainera, Zumaiaren mugikortasuna eredu aldatzeko joango da”. Ildo horretatik, berriro animatu ditu Udalak herritarrek eskuragarri dituzten

**e**n la calle Txomin Agirre, se cambiará la ordenación. Se reordenarán los aparcamientos al lado de la carretera, y junto al muelle se acondicionarán el carril para bicicletas y el paso de peatones. El concejal de urbanismo Andoni Etzaniz señala que “la ordenación

de la calle Txomin Agirre no nos pareció adecuado desde el principio. Los viandantes, las bicicletas y los coches se cruzan en demasiadas ocasiones, provocando en muchos casos situaciones de peligro”.

Del mismo modo, y basándose en el estudio sobre el alumbrado

público que el Ayuntamiento realizó en marzo del año pasado, se propone mejorar la iluminación en las calles Txomin Agirre y Mendaro Marinela. Se eliminarán las actuales luminarias de esfera, y se colocarán nuevas luminarias de bajo consumo y de baja contaminación lumínica a la atmósfera.



bidegorriak eta bizikletak erabiltzera: “guztion artean, Zumaia atseginagoa eta jasangarriagoa egiten jarraitzeko”.

Udalak apirilaren 4a arteko epea izango du proiektua Espainiako

“Guztion artean, Zumaia atseginagoa eta jasangarriagoa egiten jarraitzeko”.

Gobernuaren delegaritzan aurkezteko eta hogei egunera jasoko da erantzuna. Proiektua onartu ondoren, hilabeteko epea izango da obra abian jartzeko. Aurreikuspenen arabera, Espainiako Gobernuak 983.669 euro erabilgarri ditu Zumaiaarako.

Daniel Carballo proiektua diseinatu duen arkitektoak azaldu duenez, “antolaketa erabakitzeke lanak aurrera eramango dituen enpresarekin hitz egin behar dugu lehendabizi,

baina, gure ustetan, lan astunena zubiaren inguruan egin behar denez, interesgarriena bertatik astea izango litzateke. 5 hilabeteko epea aurreikusi dugu lanak bukatzeko”. Lanek irauten duten bitartean, bestelako bide batzuk izango dira ibaia alde batetik bestera pasatzeko.

Urgentziazko prozedura erabiliko du Udalak lan hauek egikaritzeko, obra guztia urtea bukatu baino lehen amaitu beharko baita.

**a** parte de esas adecuaciones se tomarán medidas para reforzar el servicio de alquiler de bicicletas Mugi. Según explica la aparejadora municipal Eli Zubeldia “las subvenciones de este año también contemplan iniciativas de abastecimiento, siempre y cuando estén relacionadas con los trabajos de ejecución”.

De este modo, el Ayuntamiento realizará ciertas inversiones en la prestación. Desde su puesta en marcha, el Ayuntamiento ha alquilado las bicicletas para la

gestión del servicio, y gracias a estas ayudas, se podrán comprar las bicicletas evitando así los gastos que suponía el alquiler.

“El servicio Mugi ha tenido una buena aceptación por parte de los zumaiarras. Ahora, realizaremos inversiones para reforzar el servicio e impulsar de esta manera la movilidad sostenible dentro de Zumaia”, concreta el concejal de Urbanismo y Medioambiente Andoni Etxaniz.

La ejecución del proyecto se financiará con las ayudas del Plan E,

promovido por el Gobierno Español y la fecha límite para la presentación de los proyectos será el 4 de abril. La resolución se tramitará en 20 días y el Ayuntamiento tendrá que poner en marcha la obra en el plazo de un mes. Según las previsiones, el gobierno destinará 983.669 euros a Zumaia.

Una vez esté dictaminada la resolución, el Ayuntamiento tramitará con carácter de urgencia todas las adjudicaciones, ya que la obra tendrá que estar terminada antes de acabar el año.

## Itzalaldi analogikorako prestatzen



**d**atorren apirilaren 3an, telebista emisio analogikoa betirako geldituko da, eta Lurreko Telebista Digitalak (LTD) hartuko du bere lekua. Orduan gauzatuko da itzalaldi analogikoa Zumaian ere. LTDaren estaldura bermatzea da orain lehentasuna eta egun horretatik aurrera Zumaia eta bere auzoetako etxe guztietan telebista ikusi ahal izateko modua egitea. Horretarako lanean ari dira Zumaiaiko Udala eta beste zenbait erakunde. Dagoeneko Udalaren eskuetan daude

LTDra egokitzeko eginak dauden zenbait ikerketa, eta urtarrila eta otsaila artean egingo dira azterketa zehatzagoak Itelazpi erakundearen bidez. Gero, martxoan egingo dira egokitzapenak. Ordurako zehaztuta izango dira hartuko diren neurriak zein izango diren eta horren ondoren egokitu beharko dituzte herritarrek euren etxeetako antenak.

### LTDaren inguruko zenbait kontzeptu

Herritarrek LTDaren inguruan informatzeko, ikastaroa eskaini zuen Udalak pasa den urtarrilean Zumaiaiko KZ Gunean. Ikastaroan, Lurreko Telebista Digitalaren inguruko zenbait kontzeptu azaldu zitzaizkien herritarrei. Horrez gain, itzalaldi analogikoaren baitako elementuak plazaratu ziren eta horren aurrean, LTDak eskainiko dituen zenbait abantailen berri eman zen. Besteak beste, 2010ean, Euskal Autonomia Erkidegoko etxe bakoitzak 11 kanal izango lituzke, hau da, 44 telebista-programa.

Oraingoz, etxean dituzten telebistak egokitzeko bi modu izango dituzte herritarrek: telebista berrienek jada barneratuta dute LTDaren emisioa jasotzeko deskodetzailea eta aktibatu besterik ez da egin behar. Telebista zaharragoa dutenek, berriz, deskodetzailea erosi egin beharko dute. Ondoren, martxoan egokitu beharko dira antenak, behin Udalak herrirako estaldura sarea modu eraginkorrean nola bideratu definitzen duenean.

**e**l próximo 3 de abril se efectuará el apagón analógico en Zumaia, y a partir de ese momento, sólo se podrá ver la Televisión Digital Terrestre (TDT).

*La prioridad del Ayuntamiento es ahora la de garantizar la cobertura de la TDT para que no haya problemas con la recepción de la señal.*

## Literatura tailerra Unai Elorriagaren eskutik



**Z**umaiaiko Udaleko Euskara Zerbitzuak aurrean ere antolatuko du literaturaren arloan trebatzeko

tailerra. Otsailaren 27an abiatuko da ikastaroa eta aurtengo edizioa Unai Elorriaga idazleak gidatuko du. Aita Mari auzategian dagoen EPAko lokalean eskainiko da ikastaroa eta saiok otsailaren 27an, eta martxoaren 6an, 13an eta 27an izango dira, ondorengo ordu-tegian: 10:30etik 13:30era.

Izen-emateko epea otsailean zehar egongo da zabalik eta matrikula 25 euro kostako da. Apuntatzeko udaletxeko Euskara Zerbitzuaren bulegoetara jo beharko da edota [euskara@zumaiaikouda-](mailto:euskara@zumaiaikouda-)

**e**l taller de escritura de este año estará dirigido por el joven y conocido escritor Unai Elorriaga. Organizado por el departamento de Euskera del Ayuntamiento, las clases comenzarán el día 27 de febrero, y se prolongarán hasta el 27 de marzo; serán cuatro sábados en total. La inscripción estará abierta durante el mes de febrero y la matrícula costará 25 euros.

## Geoparkeen sarean sartzeko bidea hasita



**Z**umaiako itsaslabarra ezaguna da nazioartean dituen berezitasun geologikoengatik eta duen paisaiarengatik. Berezitasun horiek oraindik eta gehiago azpimarratzeko bidean da gure itsaslabarra. Geoparke izendapena lortzeko bidea hasita du jada eskualde honek. Azaroan aurkeztu zuten hautagaitza bateratua Mutrikuk, Debak eta Zumaia eta orain, sarea babesten duen Unesco erakundea ere proposamena aztertzen ari da.

Europako Geoparkeen Sarea, geologia berezia eta beste hainbat ondare

elementu dituzten lurraldeek osatzen dute. Kide diren eskualdeen garapena aurrera eramatea da geoparkeen sarearen helburu nagusia, ingurumenari eta iraunkortasunari lotuta beti ere.

Hiru udalerrien artean, prozesu parte-hartzaile bat abian jarri zuten joan den uztailean herritarren iritzia eta babesak jasotzeko eta joan den azaroaren azaroaren 10eko ezohiko udalbatzarrean onartu zituen Zumaia udalbatzak Geoparkearen estatutuak. Iñaki Agirrezabalaga Zumaia alkatea hautagaitzarekin “baikor” agertu da:

**“Ezaugarri bereziak betetzen ditu eskualde honek eta horren barnean zer esanik ez Zumaia”.**

“Ezaugarri bereziak betetzen ditu eskualde honek eta horren barnean zer esanik ez Zumaia. Ikusi egin beharko da, hala ere, Europako Geoparkeen Sarearen baitako batzordeak azkenean zer esaten duen”.

Europako sareko kide izateak Unesco erakundeak babestutako munduko geoparkeen sareko partaide izatea ekarriko lioke eskualdeari. Egun, 32 geoparkek osatzen dute europar sarea eta 20k Asiakoa. Ondo bidean, udaberrian elkartuko da Europako Geoparkeen Sarearen batzordea eta han erabakiko dute hautagaitzak aurreneko fasea gainditu duen. Hala ba, ebaluatzaileak etorriko dira udan eskualdera, eta urri aldera hartuko lukete azkeneko erabakia.

**Z**umaia, Deba y Mutriku han presentado su candidatura a la Red Europea de Geoparques. En el plenario del 10 de noviembre se aprobaron los estatutos del Geoparque y Zumaia emprendió, junto con Deba y Mutriku, el camino hacia el nombramiento. Ahora, una comisión de la Red de Geoparques, con la participación de la Unesco, será quien decidirá si la candidatura cumple con los requisitos.

## Zumaia Lantzen udaletxean da

**j**oan den urteaz geroztik abiatutako prozesuaren ondotik, Zumaia Lantzenen bulegoak udaletxean bertan aurkitzen dira dagoeneko. Joan den otsailean erabaki zuen erakunde horren Administrazio Kontseiluak kudeaketa eredu aldaztea, eta hala, Udalaren menpeko organo hau ez du jada enpresa pribatu batek gestionatzen.

Hori ahalbidetzeko lehenengo urratsak eman dira dagoeneko. Izan ere, erakundea kudeatzeko zuzeneko bi langile kontratatu dira, gerentea eta

finantza arduraduna. Izaera sozialeko etxebizitza promozio berriak sustatuko dituzte orain Zumaia Lantzenen arduradun berriek.

### Telefono berria

Aurrerantzean herrian bertan izango dituzte herritarrek Zumaia Lantzenen bulegoak eta ez herritik kanpo, orain arte bezala. Horrekin batera, telefono berria izango du erakundeak. Honakoa izango da aurrerantzean Zumaia Lantzenen telefonoa:

**94314 34 15**

**L**as oficinas de la sociedad municipal Zumaia Lantzen ya se encuentran en el Ayuntamiento. En febrero del año pasado, el Consejo Administrativo de la sociedad decidió cambiar el modelo de la gerencia de la entidad pública y dejó de ser gestionada por una empresa privada. Se han contratado un gerente y una responsable del sector financiero. Así, los zumaiarras no tendrán que salir de Zumaia para contactar con Zumaia Lantzen, y este será el nuevo número de la sociedad: 943 14 43 15.

## Gazteen premiak jaso eta asebate

**Z**umaiako Udalak Ludoteka zuzenean kudeatzeko erabakia hartu eta berehala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur eta Gazteen Sustapen Ataleko aholkularitza zerbitzua eskaintzen duen Bulego Teknikoarekin jarri zen harremanetan. Nerea Epelde

Hezkuntza zinegotziak azaldu duenez, “ordutik, Bulego Teknikoak aholkulari lanak egin ditu herriko gaztetxoenei eskaintako zerbitzuen politikak zehazterako garaian eta bide horretan hainbat urrats egin dira”. Hortik abiatuta egin da herriko haur, nerabe

eta gazteen sustapenerako sistemaren diagnosis. Maider Errasti Aldundiaren Bulego Teknikoko teknikaria eta Miriam Romatet Zumaiako kultura teknikaria lanketa honetan aritu dira, Josune Herrarte Hezkuntza teknikariarekin batera.



Gazteguneko nerabeak.



### Maider Errasti

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur eta Gazteen Sustapen Ataleko teknikaria

### Miriam Romatet

Zumaiako Udaleko Kultura teknikaria

### Zein dira atara dituzuen ondorio nagusiak?

Zumaiako Gaztegunek hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie lehenik ere herriko nerabeei. Orain, egin nahi duguna da eskaintza herrira zabaldu eta nerabeek zerbitzua “beraienago” sentiarazteko egitasmo bat diseinatu. Hori da, diagnosi horretatik ateratako ondorio nagusietako bat. Horrekin batera, gazteek Udalarekin harreman iraunkorra mantentzeko bideak errazteko ahalegina egingo dugu. Zumaiako gazte eta nerabeak aktiboak dira oro har, baina herriko talde desberdinetan sakabanatuta hartzen dute parte ekimenetan. Zuga kenduta, gazteak elkartzan dituen beste talderik ez dago Zumaiakoan.

### Ondorio horietatik abiatuta, prozesu berri bat abian jarri duzue dagoeneko. Zertan oinarritzen da?

Prozesu parte-hartzaile bat bultzatu nahi dugu Gaztegunea herriko nerabeen artean erreferente bilakatzeko, eta horretarako zerbitzuari bultzada bat ematea da orain gure erronka. Bi urrats desberdin definitu ditugu horretarako: lehenengo eta behin, Gaztegunearen balorazioa egingo dugu eragile desberdinekin, eta ondoren, balorazio horretan oinarrituta eta irizpide teknikoak kontuan hartuta beti ere, zerbitzua hobetzea izango da asmoa.

### Zein izango dira protagonistak prozesuan zehar?

Alde batetik, Gaztegunera joan ohi diren nerabeekin egon gara dagoeneko. Horrekin batera, Gazteguneko erabiltzaile ez diren nerabeengana zuzenduko gara orain eta eskolek ahalbidetuko digute hori. DBHko mailetan, Gaztegunearen gaia landuko dute tutoretza orduetan eta ikasleen iritzia jasoko ditugu.

### Nerabeekin zer da lortu nahi duzuen?

Zerbitzua euren beharretara egokitzeko ahaleginarekin batera, parte-hartzearen aldeko bideak erakutsiko dizkiegu nerabeei. Beraiei zuzendutako zerbitzua definitzeko garaian, eurek ere ardurak



Gaztegunek antolatutako ekimenean herriko nerabeak.

hartzeko aukera izatea eta beraien zuzeneko iritzia jasotzea dira helburu garrantzitsuenak.

### **Eta ikastetxeek nola baloratu dute diagnosia bera eta ondorengo prozesua?**

Zumaiako haur, nerabe eta gazteen Diagnosia izan da lehenengo urratsa, eta azterketa horren garapenean ikastetxeek parte hartu dute. Orain arteko lana eta aurrera begirako lan-ildoak aurkeztu dizkiegunean, baloratu

dute diagnosiarekin batera jasotzen den lan proposamenean aurrera egitea, eta hau praktikara eramatea. Gure aldetik, eskerrak eman beharrean gaude eskaini diguten laguntzarengatik.

### **Zein izango dira etorkizunerako helburuak?**

Alde batetik, udal gazteria gaietan, gazteria politiken marko bat garatzea izango litzateke erronketako bat. Ildo beretik, haur, nerabe eta gazteei lotutako gaietan norabide eta irizpide komun

batzuetan lan egitea sustatu nahi da, eta horrekin batera, hiritartasun aktiboa bermatzeko ekimenak bultzatzea eta gizartean parte-hartzeko aukera berdintasuna bermatzea faktore garrantzitsuak izango dira. Azkenik, eta hori guztia kontuan izanda, komenigarria izango litzateke gazteriaz arduratuko litzatekeen teknikari bat izatea Udalean. Baina pixkanaka joan beharko dugu urratsak egiten. Oraingoan, gabeziei aurre egiteko hiru urteko lan proposamena daukagu garatuta eta bide horretan egingo dugu lan.

**e**l Ayuntamiento de Zumaia ha realizado un diagnóstico que recoge las premisas de niños/as y jóvenes de Zumaia en colaboración con la Oficina Técnica de la Diputación de Guipúzcoa. El propósito es participar en el sistema para el estímulo de niños/as y jóvenes de Zumaia y adecuar según sus necesidades las prestaciones que se ofrecen en la localidad. Mainer Errasti, técnica de la Diputación y Miriam Romatet técnica de cultura de Zumaia, han estado dirigiendo el diagnóstico, junto con la técnica de educación Josune Herrarte.

*Acorde a los estudios realizados en el diagnóstico, se ha diseñado un plan de acción para los próximos tres años. En lo que respecta a los adolescentes, entre otras cosas, el diagnóstico detecta cierta necesidad por reforzar la identificación de los adolescentes de Zumaia con el Gaztegunek. Para ello, se pretende llevar a cabo un proceso participativo con diferentes sujetos. Por un lado, se trabajará la cuestión del servicio con los propios adolescentes; del mismo modo ya se ha llevado a cabo un foro con padres y madres;*

*también contarán con la opinión del profesorado; y por último, elaborarán el plan contrastando con las opiniones de la actual empresa adjudicataria, Ostargi, y los responsables municipales.*

*En esa dirección, se pretenden dar pasos hacia la centralización de un marco dentro de la gestión municipal para abarcar diferentes acciones relacionadas a este ámbito y promover así iniciativas participativas y coordinadas para el estímulo de los adolescentes de Zumaia.*

## Azpiegitura berria Artadi auzoan



Artadiko askaldegiaeren proiektua.

**Z**umaiako Artadi auzoak topaleku berria izango du laster. Izan ere, Udalak merendero edo askaldegi bat eraikiko du auzoan, auzotarrei zein kanpotik bertaratutakoei zerbitzua eskaintzeko. Lehengo eskola zaharraren tokian eraikiko da azpiegitura berria. Andoni Etxaniz hirigintza zinegotziak azaldu duenez, “lehengo eraikina oso egoera txarrean dago, eta beraz, erautsi egingo da lehendabizi, ondoren, eskola zaharraren azalera berdinean askaldegi berria eraikitzeko”.

**“Erautsi egingo da lehendabizi, ondoren, eskola zaharraren azalera berdinean askaldegi berria eraikitzeko”.**

Azpiegitura berriaren kokalekua kontuan izanda, eraikin berria irekia izatea proposatu zuen Udalak. “Bista oso ederrak daude hemendik, eta hori kontuan izanda, eraikinak funtzio bikoitza izango du: batetik, askaldegi gisa antolatuko da, eta bestetik, behatoki gisa ere erabili ahal izango da”, dio Gorka Arregi udal arkitektoak.

Zumaiako Non Arkitektura estudioari esleitu dio Udalak eraikin berriaren proiektua idazteko lana, eta proiektuan jasota dagoenaren arabera, solairu bakarra izango du hasiera batean eraikinak. Bertan, otorduak egiteko mahai

eta aulkiak jarriko dira, eta horrez gain, komunak egokituko dira. “Auzoari falta zitzaizkion zenbait zerbitzu eskaintzea da asmoa. Aterpea eskainiko da batetik; bestetik, askaldegia; eta hirugarrenik, komun publikoak eta iturria izango dituzte auzotarrek”, azaldu du Etxanizek.

Hasiera batean, modu horretan osatuko litzateke solairua. Aurrera begira, hala ere, aukera egongo litzateke eraikinaren azpialdeko hormigoizko kuboak, komun euskarri lanak egiten dituen egitura alegia, beste zenbait funtziotarako egokitze. Oraingoz, beheko egitura horri zer funtzio eman aztertzen ari da Udalak.

149,31 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikiko da guztira, eta horietatik 125,90 m<sup>2</sup> hartuko ditu askaldegia. Eraikina egurrezkoa izango da oro har, eta orotara, hiru material erabiliko dira eraikuntzan: egur laminatua, hormigoia eta altzairua. Eraikinaren azpialdeko egitura hormigoizkoa izango da, eta material berdina erabiliko da mahaiak eta aulkiak egiteko. Komuneko elementu guztiak, berriz, altzairuzkoak izango dira, eta egur laminatuzkoak izango dira zorua eta estalkiaren egitura. Non Arkitektura estudiotik adierazi dutenez, “egurrezko plataformaren euskarriak eserleku bihurtzen diren hormigoizko pantaila batzuk dira. Egitura horrek, portuetako pantanalak ekarriko dizkigu gogora eta mahai eta aulkien antolamenduak, berriz, garai batean izandako eskola du oinarri”.

**“Portuetako pantanalak ekarriko dizkigu gogora eta mahai eta aulkien antolamenduak, berriz, garai batean izandako eskola du oinarri”.**

Udalak 180.000 euro bideratuko ditu askaldegiaeren proiektua idatzi eta obra gauzatu ahal izateko.

**e**l barrio San Miguel de Artadi pronto contará con un nuevo lugar de encuentro tanto para los vecinos como para los visitantes. El Ayuntamiento construirá un merendero en la superficie de la antigua escuela y tal y como explica el arquitecto municipal Gorka Arregi, “teniendo en cuenta las características de la superficie, el edificio cumplirá dos funciones: por un lado, se acondicionará para cumplir los servicios que ofrece un merendero, y del mismo modo, funcionará como un observatorio”. Además, la infraestructura contará con servicios públicos y una fuente, “saciando así ciertas carencias que existían en el barrio”, señala Andoni Etxaniz concejal de Urbanismo. El merendero tendrá una dimensión de 125,90 m<sup>2</sup>, y el Ayuntamiento dispondrá 180.000 para la obra.



**e**l equipo de gobierno ha propuesto al Consejo de Administración de Zumaia Lantzen solicitar un crédito al Ayuntamiento por valor de 2.500.000€. Nos abstuvimos.

*Previsiblemente, el Pleno tendrá que aprobar la concesión de ese crédito en próximas fechas.*

*¿Podemos aprobar esa propuesta sin que vaya acompañada del proyecto de Presupuesto General para 2010 del Ayuntamiento y todos sus organismos y sociedades?*

*¿Por qué han esperado hasta ahora para plantear esta operación de rescate cuando hace unos meses hacía caso omiso a nuestras continuas llamadas de atención sobre su situación financiera?*

*Por lo que sabemos, partimos de un borrador de Presupuesto Municipal en el que los gastos corrientes ya superan en 650.000 € a los ingresos corrientes. Es decir, un Ayuntamiento con sus cuentas nada saneadas pretende sanear las cuentas de una Sociedad Pública de que es titular.*

*¿Cómo es posible que la dejadez de este gobierno haya llevado a la Sociedad Municipal a esta situación?*

*Zumaia Lantzen debía a 31 de diciembre 644.372 € a proveedores. ZL, debe, además, entre otros créditos que ha ido pidiendo durante el último año y medio, 2.500.000 euros ya vencidos a un banco. Desde el 1 de enero esa deuda está generando unos intereses de demora de 1.232 €/ día. Hoy es 25 de enero: 30.700 euros en intereses de demora. Dicen que el banco no los va a cobrar y se fían de quienes cobran comisiones por enviar ayudas a Haití. Pero, ¿no eran nuestros gestores municipales quienes alardeaban de haberse bajado los sueldos? Su disminución salarial suponía una relajación en la gestión. Hay rebajas que acaban saliendo bien caras.*

*¿Podrán cobrar a tiempo lo pactado por Puntanueta? ¿Qué pasos efectivos se han dado durante los dos últimos años para poder cobrar lo establecido en el convenio Torreaga? ¿Cuándo podrán poner a la venta las viviendas de Odieta después de tantos retrasos? Y si ZL no cobra todo esto, ¿cómo devolverá los 2,5 millones? Por cierto, no parece que vayan a hacer el aparcamiento en Beheko Plaza, con lo que según nos cuentan, las viviendas de Odieta tendrá garages... sin acceso.*

## ezker abertzalea

**2**009ko abenduaren 30ean, **ez ohiko pleno berezia** izan genuen. Gaia **Gernikako parkeko eskultura** zen, baina pleno hartan beste zerbait ere irudikatu zen: Gobernu Taldean lehendik izandako desadostasunak eta tira-birak, Pilar Etxabe zinegotzia Gobernu Taldetik kanpo utzi dutenak.

Gobernu Taldea eratu eta berehala hasi ziren gora-beherak, batez ere guztiok **ez genuelako berdin ulertzen adostutako Gobernu Programaren gainean lan egitea** eta lantaldean aritzea. Kultura batzordeburua izanik eta nahi zuena egitea zeukala sinetsita, Etxabe zinegotzia **erabaki batzuk bere kasa eta nahi bezala hartzen hasi zen**, gainerako gobernukideei kontsultatu gabe, eta batzuetan adostutako programaren aurka ere bai; karguan egon zen bitartean, zeukan botereaz baliatu zen **nahi zuena egiteko**, eta horrek tentsioa ekarri zuen Gobernura. Erabaki pertsonaletako bat izan zen, hain zuzen ere, Zumaian bizi zen eskultore baten lana Gernika parkean jartzearena; horren aurrean, **Ezker Abertzalea aurka** agertu zen, batez ere gure ustez lehenengo aztertu eta argitu behar zelako zer irizpide erabiliko ziren, baita bestelakoak ere: une egokiena ote zen edo ez, nori eta nola eman behar zitzaion horretarako aukera... Gobernu Taldearen babesik ez zuela eta, Etxabe zinegotzia **gaiarekin egoskortu** egin zen, berak emandako hitza edo eskultura jartzea hil ala bizikoa balitz bezala, eta beste alderdien babesa bilatu eta aurkitu zuen. Horrela, lortu zuen 30.000 euroko proiektua zuzenean eta lehiaketarik gabe ematea. Zorionez, Etxabe zinegotziak utzi du bere ardura eta uste dugu oraindik garaiz gaudela Zumaian kulturgintzan aritzeko, **Zumaian kultura indartzeko**, eta horretarako **dei egiten diegu herritarrei**.

Bestalde, leiho honetaz baliatu nahi dugu Ezker Abertzalearen baitan Euskal Herri osoan (baita Zumaian ere) garatzen ari den **eztabaida--prozesuaren berri** emateko. Ezker Abertzalearen iritziz, benetako aldaketa politikoaren atarian gaude, eta hori gerta dadin lan egingo dugu. Garaia da Euskal Herriarentzat bidezko konponbide egonkor eta iraunkorra ekartzeko; bada ordua konfrontazio armatua, blokeoa eta itxaropen eza gainditzeko, eta oztopoak oztopo, horretarako jardungo dugu. **Ezker abertzalearen proposamena** hemen aurki dezakezue: [www.ezkerabertzalea.info](http://www.ezkerabertzalea.info)



**P**asa diren udal hauteskundeetan EA-k %17,5-eko babeseraren lortu zuten, 763 bozka eta 2 zinegotzi (gure alderdiak ia beti izan dituen bezalaxe). Ohikoa den bezala, programa batekin aurkeztu ginen hauteskundeetara. Programa batean beti daude lehentasunak eta gaur da eguna ozen esan dezakeguna lehentasun horiek betetzen ari direla: Zumaia Lantzen-en kudeaketa berria daukagu, aukera berdintasuna eta konkurtso publikoak bermatzen ditugu (oposizioak gehiengoz kontrakoa egitera behartzen ez gaituen neurrian behintzat), pertsonal arloan interinitatea erraz jaisten ari gara, lanpostu iraunkorrak sortuz, kirol arloan hausnarketarako bideak zabaldu ditugu, herritarren partaidetzari bideak ireki dizkiogu...

Guzti hori, ordea, ez da hala nola egiten. Talde bat sortu beharra dago, indarrak batu eta ideiak era komunean partekatu behar dira. Udala guztion etxea da eta ez da enpresa erraza hori kudeatzea. Bertan dauden ordezkariak beraz, programa bati eta talde bati atxikiak geratzen dira. Nola ulertu bestela kargu publiko baten jarduna?

Edozein inkestetan ikus daiteke herritarrek politikarekiko duten mesfidantza. Eta ulertzekoa da. Izan ere ustelkeria kasuak asko dira, edota zenbait politikarik esaten dutenetik egiten dutenera dagoen aldea ere nabarmena izaten da askotan. Baina baita denetik jakitun bihurtzen diren politikariak ere. Horrek, egundoko kaltea eragiten dio politika munduari. Munduko mesias bailitzan bezala, oraintxe landareak indartsu hasteko metodoei buruz hitz egiten dizute eta errenkan plan estrategikoei buruzko tesiei buruz. Edozerk balio du. Eta beren ideiak zalantzak jarriz gero, adi!

Onartu beharra daukagu, zoritxarrez guri babeseraren eman zeniguten guztioi, pertsona batengatik ezin dugula udalean guri dagokigun indarrarekin ihardun. Baina garbi izan gure programa aurrera bultzatzen jarraituko dugula, aniztasuna bultzatu eta akordioak erdietsiz. Zumaiaiko Udalean aspaldian izan ziren ohitura txarrak aldatze bidean jarri ditugu eta horri eusteko gure borondatea berresten dugu. Zoritxarrez, ordea, ez ditugu bide lagun izango oposizioko zenbait kide. Egoera hau erraz aprobetxatzen hasiak dira. Kalkulua erraz egin dute, aprobetxatu dezagun geratzen den denbora baliatu eta gobernuaren ekimenak zapuzteko. Bai egoera, bai pertsona erabiliko dute. Erabili aditza diogu eta ez hartu aditza, atzo jaiotakorik ez baitago inor.



**N**os gustaría informar del cambio de nombre en nuestro grupo municipal, que pasa a denominarse Aralar-Alternatiba y cuyo portavoz será Xabier Olaizola. Queremos subrayar, sin embargo, que esto no supone ninguna alteración en nuestro firme compromiso de seguir adelante con nuestra labor dedicada a mejorar la calidad de vida de los zumaiarros.

*Desde la oposición, creemos que, a lo largo de la presente legislatura, se han llevado a cabo una serie de importantes mejoras, entre otras cosas porque aquellos que creían que el monopolio del poder debe estar en un solo partido se equivocaban. En gran parte, se ha desmontado el modelo de gestión del urbanismo que durante años, y ante el silencio de casi todos, el PNV había llevado adelante. Se han comenzado experiencias de participación ciudadana –que nunca antes se habían realizado– y se ha aumentado la transparencia. También se han alcanzado acuerdos con el Gobierno Vasco para construir más VPO, especialmente, en alquiler.*

*La labor constante de mejora de nuestro pueblo, además, nos ha llevado a adoptar acuerdos en el Pleno que requieren mucho diálogo, flexibilidad y encuentros entre diferentes partidos de la oposición. Esto es lo que piden los ciudadanos porque, en Zumaia, no sobra nadie, aunque haya veces que algunas decisiones no sean del gusto del Gobierno.*

*Seguimos pensando que hay algunos aspectos que habrá que mejorar en la gestión municipal. Queda algo más de un año para las próximas elecciones y mucho trabajo pendiente. La ciudadanía zumaiarra sabe que cuenta con un bloque izquierdas que está preparado para ello.*



**C**omenzamos un año más, el último con efectividad dado que el mandato termina en mayo del 2011 con unas nuevas elecciones municipales y forales en un panorama muy distinto a la anterior convocatoria del 2007, políticamente y económicamente hablando. Nuevo Gobierno Vasco, partidos políticos rotos y en confrontación nuevos grupos sin una clara definición política y social, en fin, tomemos este 2010 con ganas de trabajar para que la crisis sea un recuerdo lo más pronto posible.

*En el Pleno Extraordinario del día 30 de diciembre pasado, se trató de hacer realidad algo que llevaba más de año y medio sin solución, nos referimos a la colocación de un proyecto de esculturas en el parque de Gernika, que fue aprobado en la comisión de cultura en 2008 y que por desavenencias políticas en la comisión de Gobierno, y aun teniendo presupuesto de 15.000 euros aprobado y otros 15.000 euros pendientes de aprobación nunca se puso en marcha ¿tenemos que ser los grupos de la oposición los que acaben poniendo en marcha lo que la propia Comisión de Gobierno acuerda y luego no es capaz de ejecutar?. Creemos que la situación del Ayuntamiento requiere un debate en profundidad para el tiempo que nos queda de mandato.*

*En espera de la presentación de los Presupuestos para el año 2010 que una vez más llegan tarde, finalizo el año con un acuerdo del nuevo Gobierno Vasco con este ayuntamiento que nos aporta aproximadamente más de 1 millón y medio de euros, a cambio de ejecutar 3 de los 6 bloques de Puntanoeta con viviendas en alquiler y alquiler social, que por primera vez en Zumaia darán la oportunidad a muchas parejas jóvenes a independizarse y comenzar una nueva vida en común. Lo mismo que para jóvenes que de forma individual quieran independizarse de la vida en familia y vivir la suya propia, son 147 viviendas que se sacaran al mercado, mas la posibilidad de construir alojamientos dotacionales en la parcela de titularidad de Zumaia Lantzen S.A. que se cede de forma gratuita al departamento de vivienda del Gobierno Vasco, entendemos este convenio muy positivo, además con la aportación económica que aporta podrá seguir trabajando dada la falta de liquidez económica que soporta, con la necesidad de pedir créditos harto difícil en la actual situación de los bancos aparte de los intereses a pagar a los mismos, derivado esto de una errónea decisión política de la Comisión de Gobierno que ha llevado a está a una descapitalización total a la vez que seguía realizando obras para el ayuntamiento.*

## Abenduaren 30eko ezohiko plenoa

**1-** Zinegotzi batek beste hiru udal-talderen babesarekin Gernikako parkerako eskultura esleitzeko aurkeztutako proposamena onartu egin zen, aldeko zortzi botorekin (EAJ, Aralar-Alternatiba, PSE-EE eta Pili Etxabe). Lauk kontra bozkatu zuten (Talde Mistoa 3 eta EA 1).

**2-** Aldeko lau boto (Talde Mistoa 3, eta EA 1) jaso zituen udal gobernuak aurkeztutako Gernikako parkerako eskultura esleitzeko plegu proposamenak. Zortzik kontra bozkatu zuten (EAJ, Aralar-Alternatiba, PSE-EE eta Pili Etxabe).

## Abenduaren 10eko ezohiko plenoa

**1-** Aho batez onartu zen azaroaren 26ko ohiko plenoak aktak.

**2-** Aho batez onartu zen Eusko Jaurlaritza, Zumaia Lantzen, eta Zumaiako Udalaren arteko hitzarmena.

Hitzarmen horrek ahalbidetuko du Puntanoetan babestutako 285 etxebizitza egitea. Horietatik 84 babestutako alokairuzkoak izango dira.

## Urtarrilaren 28ko ohiko plenoa

**1-** Aho batez onartu ziren abenduaren 10eko eta abenduaren 30eko plenoetako aktak.

**2-** Aho batez onartu zen Zumaia Lantzen S.A.-ri epe motzerako mailegua ematea (PNV 4, Talde Mistoa 3, Aralar-Alternatiba 2, PSE-EE 2, EA 1, Pilar Etxabe 1).

**3-** Eskari eta galderetan, urgentziazko mozio bat aurkeztu zuten pertsonaleko kontu batekin. Mozioaren urgentzia bozkatu zuten lehendabizi (EAJ, Aralar-Alternatiba, Talde Mistoa, EA eta Pilar Etxabe alde eta PSE-EE kontra agertu zen). Urgentziaren bozketaren ondoren, eztabaidara pasa ziren eta aho batez onartu zuten mozioa plenoan zeudenek.

# agenda otsaila febrero / martxoa marzo



## Deialdiak / Convocatorias:

- SAN TELMOAK antolatzen deialdia: otsailak 5, ostirala, 19:00etan udaletxean. / *Reunión para organizar los San Telmos, 5 de febrero, a las 19:00 en el Ayuntamiento.*
- MENDI ASTEA 2010: Martxoaren 22tik 25era, Forondan, Mendiko ikus-entzunezkoak (ikusitako egitaraua) / *Semana sobre la montaña. Del 22 al 25 de marzo.*
- OUT LET AZOKA: Herriko dendarien deialdia otsailaren 27 eta 28an / *Feria Outlet: Del 27 al 28 de febrero.*

## Otsaila / Febrero

### Osteguna, 11 Jueves

22:15ean zine foruma / *Cine forum: 'París'*

Otsailaren 12an hasita, Inauteriak / *Carnavales.*

### Ostirala, 12 Viernes

Arratsaldean herriko ikastetxeekin kalejira / *Pasacalle de los alumnos de Zumaia.*

19:30ean Musika eskolarekin 'piratak' Ikuskizuna / *Actuación 'Piratak' de la Escuela de Música.*

23:00etan Musika Banda eta San Pedro Abesbatzarekin Inauteri jaialdia / *Fiesta de carnaval.*

### Larunbata, 13 Sábado

18:00etan hasita Tximeletak txarangaren kalejira / *Pasacalle con la txaranga.*

18:30ean Diskoteka eta Haurrentzat Mozorro lehiaketa / *Discoteca y concurso de disfraces de niños.*

22:30ean Diskoteka eta Gazteen Mozorro lehiaketa / *Discoteca y concurso de disfraces de jóvenes.*

### Astelehena, 15 Lunes

15:00etan eta 17:00etan Pirritx eta Porrotxen Inauteritako saioa / *Actuación de los payasos Pirritx eta Porrotx.*

### Larunbata, 20 Sábado

18:30ean Komentuan, kontzertua: Bilboko Musika Kontserbatorioko Saxofoi Laukotea eta Ensamblea / *Concierto en el convento: Saxofón y Ensemble.*

### Osteguna, 25 Jueves

22:15ean zine foruma / *Cine forum: 'Gigante'*

### Ostirala, 26 Viernes

22:00etan Aita Marin, antzerkia: Tizzina Teatroaren "Exitus" antzezlan / *'Exitus' de Tizzina Teatro.*

### Larunbata, 27 Sábado

Zumaiako XXVI. Herri Lasterketa. Haurrak 16:00etan aterako dira, eta helduak 17:00etan / *XXVI. Cros Popular de Zumaia.*

## Martxoa / Marzo

### Ostirala, 5 Viernes

22:00etan Aita Mari aretoan, antzerkia 'Babiloniako Loreak' / *Teatro: 'Babiloniako Loreak'.*

### Igandea, 7 Domingo

12:00etan antzerkia haurrentzat antzerkia 'Jonen ilargia' / *Teatro infantil: 'Jonen ilargia'.*

19:00etan Emakumearen Egunaren aitxakian, kontzertua. / *Concierto del día de la mujer.*

### Osteguna, 11 Jueves

22:15ean zine foruma / *Cine forum '(500) días juntos'*

### Larunbata, 13 Sábado

Iluntzean, Ermuako eta Zumaiako Musika Banden kontzertua Larunbata 20 / *Concierto de las bandas de Ermua y Zumaia.*

Energiaren eguna. Egitarau zabala. / *Día de la Energía.*

### Osteguna, 25 Jueves

22:1,5ean zine foruma / *Cine forum, 'Man on wire'*

